

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ZENTROAK GARBITZEKO KONTRATUARI BURUZKOA

Arantza González García Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko zinegotziak eta Jabi Vitoria Roma EH Bildu taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten diote Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzi López andreari, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAK 2024-05-20an egin zuen bileran aurkeztutako interpelazioen ondorioz, zentroak garbitzeko kontratua dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean esan genuen moduan, legealdiaren hasieratik, zentroak garbitzeko kontratuari (2. lotea) buruzko ekimenak aurkezten ari gara. Kontratu hori Gizatzen enpresari duela urtebete pasatxo esleitu zitzaion.

Kontratu horren kudeaketa ez da, inola ere, eredugarria izaten ari. Enpresak kontratuaren baldintza ekonomikoak "hobetzeko" modua aurkitu du, lan-prekarizazioaren bidetik. Izan ere, une honetan, soldata-eskala bikoitza aplikatzen ari da lan berbera egiten duten langileen artean; langileak bidegabe kaleratzen ari da, beste langile berri batzuk kontratatzea merkeagoa delako, eta eraginkortasun mugatuko akordioa eta probintzia-mailako hitzarmena, ordu-kopurua handitzeari dagokionez, urratzen ari da. Eta, hori gutxi balitz, orain hitzarmen berriaren negoziazioa erabiltzen ari da hain errentagarri zaion soldata-eskala bikoitzari legezketasun itxura emateko.

Udal gobernuak ez luke, inola ere, hori onartu behar. Izan ere, baliabide publikoekin ezin da lan-prekarietatea sortzen lagundu. Udalaren betebeharra guztiz kontrakoa da: azpikontratutako zerbitzuak lan-baldintza duinetan ematen direla bermatzea.

Egoera horren ondorioz, langileek mobilizazio-egun batzuk antolatu dituzte, eta hilaren 13an grebari ekin zioten.

Aurreko guztia nahikoa da udal gobernuak ez luzatzeko kontratua Gizatzen enpresari, eta zerbitzua berriz azpikontratatzea erabakitzen badu, kontratu berriak guztiz itxi behar dio bidea langileen lan-baldintzak prekarizatzeari.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ez ziotela kontratua luzatu nahi egungo enpresa esleipendunari, Gizatzeni, baldin eta baldintza-agiriak garaiz prestatuta baldin badauzkate. Dena dela, urtebete baino gehiago igaro da eta, denbora horretan guztian, enpresaren kudeaketa oso eskasa izan da, oro har, eta bereziki langileei ematen zaien tratuari dagokionez, lehen esan dugun bezala.

Onartezina da administrazio publiko batek onartzea enpresa pribatu batek lan-prekarietatea sortzea, soldata-eskala bikoitza aplikatzeko legeria bihurtzea eta lan-hitzarmenaren negoziazioa erabiltzea eskala hori denboran iraunarazteko, soldatak izoztuz eta eskala bikoitzari eutsiz.

Udal gobernuak ezin du beste alde batera begiratu, eskura dituen tresna guztiak erabili behar ditu enpresa pribatu batek emakume langileen lan-baldintzekin negoziatorik egin ez dezan –emakume horien zeregina da Donostiako Udalaren mendeko haur-eskolak, ikastetxeak, liburutegiak, kultur etxeak eta zahar etxeak garbi mantentzea–.

Horren guztiaren ondorioz, udal gobernuak zerbitzu horren zuzeneko kudeaketa planteatu beharko luke, egiturazko zerbitzua baita eta ezinbestekoa herritar kalteberenei, hala nola haurrei eta adinekoei, higiene-baldintza onak bermatzeko.

Hori dela-eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari zentroak garbitzeko Gizatzen enpresari esleitutako kontratua (2. LOTEA) ez luzatzeko, langileen lan-baldintzei dagokienez aurrera eramaten ari den kudeaketa prekariora ikusita.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari kontratuaren baldintza-agiri berrian, irizpide objektiboen artean, prezioaz gain, beste batzuk sartu eta baloratzeko, hala nola genero-ikuspegia eta enpleguaren kalitateari eta egonkortasunari buruzko klausula sozialak –lanaldi partzialak dituzten langileei ordu-kopurua handitzea, adibidez–.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari zentroak garbitzeko zerbitzuaren lizitazioaren baldintza-agiri berriak (2. LOTEA) berma dezala enpresa esleipendunak ez duela soldata-eskala bikoitzik aplikatuko, ez esplizituki, ez inplizituki.
4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari lantalde bat sortzeko, legegintzaldi honetan eta aurrekoetan udal zentroyen garbiketa-zerbitzuari dagokionez onartutako mozioak betetzeko, lan-baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea hobetze aldera.

Jabier Vitoria Roma

EH Bildu udal taldea

Arantza González García

Elkarrekin Donostia talde mistoa